

BALIO PROPOSAMENA

Esan dugun moduan gure idearekin lortu nahi duguna da itsasoaren egoera denon artean hobetzea eta animalientzako eta arrantzaleentzako bizimodu hobe bat bilatzea. Askoran jendea ez da konturatzen hondakin bat lurrera edo itsasora botatzea oso kutsakorra izan daitekela denon bztzetarako eta askotan animaliak horren ondorioz hiltzen direla.

Beste alde batetik, itsasoan dagoen kutsadura, arrain edota bertan bizi diren beste animali mota batzuk jaten badute, gero gure kalterako izango da, zeren eta ezin ditugu animali kutsatuak erosi, ezta jan. Horregaitik gure proiektuak lortzen duena da, itsasoan dagoen zabor guztia pilatzea leku zehatz batean, horrela ez du gainontzeko itsasoa kutsatzen. Horren ondorioz, kutsadura murriztea lortuko da.



Gure zaborrontziaren diseinua hurrengokoa da: formari dagokionez, zaborrontzi handi bat izango da, asterik behin aldatuko dena, kutsadura asko dagoelako itsasoan. Luzeegia eta karratu forma izango du, bi ate izango ditu eta ate hauek imanak dituzte bertan hondakinak detektatzeko. Detektatzean, ateak zabalduko dira eta hondakina zaborrontziaren barnera sartuko da, ateak itxiz. Zaborregiak batzen direnean, zaborrak eramaten dituen kamio baten bitartez, zaborregira eramango da. Hor zaborra bere edukiontzi egokienera botako da, birzikla dezan.